

OTSOÑO



LIBURUAREN FITXA

SOLOTAREFF, Grégoire. *Otsoño*. Ikas, 2011

Aurkezpena

“Otsoaren beldur” izatea zer den aurkituko dute ipuin honetako bi protagonistek. Batetik, Otsoño dugu, oso gaztetan bakarrik geratu den otso bat. Bestetik, Txon untxia, zeini esperientziak oraindik ez dion erakutsi beldurra zer den. Beraien inozentzia osoan, elkartu egiten dira bizimodua konpartitzeko. Denboraren poderioz, Otsoñok bere otso-izaera erakutsiko dio Txon untxiari. Aurrerago Otsoñok beste otsoen bitartez ezagutuko du beldurra zer den. Aurrerantzean elkarrekin bizi ahal izateko hitzarmen bat egiten dute bi adiskideek.

Kontakteta

Ezin bestean ahozko kontakteta egin behariko da istorioaz ondo jabetu bitartean, izan ere, testua lapurteraz idatzirik dago. Liburuan oso nabarmenak dira autoreak erabiltzen dituen koloreak eta kolore hauen intentsitatea. Gorriak eta beltzak beldurra islatzen digute, bakardadea eta bortizkeria; beste muturrean, horia eta urdina ditugu, eta, horiek, eskaintzen duten babesa azpimarratzen dute.

Proposamenak bideratzen

- Beldurraren konzientzia lortzea izan daiteke saio honen helburua.
- Zergatik ez da untxia otsoaren beldur?
- Noiz konturatzen da otsoa untxiak sentitzen duenaz?

Proposamenak zehazten

- Pentsatuko dugu izua sortarazten duten animaliangan.
- Pentsatuko dugu izua sortarazten duten egoeretan.
- Zer egiten edota esaten duzu izutzen zarenean?
- Marratu egoera horietako bat, eta esan irakasleari esaten duzuna idazteko.